

# Arrasate

P R E S S U

ARRASATE / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 656. zenbakia

# 2003

# urteari begiratuwa

## ARRASATE



**ARRASATE-G TALDEA, S. COOP.**

Lehen Arrasate Garbiketak zena

*Zorionak eta urte berri on,  
arrasatear guztioi*

Gure bulego berrien helbidea, hauxe:  
San Andres 2  
ARRASATE

Tel.: 943 79 70 39 Faxa: 943 79 72 75  
e-posta: [arrasategt@arrasategt.com](mailto:arrasategt@arrasategt.com)

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... 943 77 05 57

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86


## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22

## KALEINKESTA/ Urte ona izen da? Eta, txarra izen bada, zergaittik?



**LEIRE URRUTIA**  
Langillie



**JUAN CALVO**  
Langillie



**PEDRO MARIA ZUBILLAGA**  
Jubilae



**AITOR SAEZ DE AZKUNAGA**  
Langillie



**MAITE CAMPOS**  
Ikaslie



**GEMA SANCHEZ**  
Langillie

Pertsonalki urte ona izen da. Kanpora begire, baiñe, danetik egon da: hamengo egoera politikue ez da bape ona izen, eta gerrie be euki dogu. Gaiñera, euskeriek erasuek jasan biher izen dittu.

Ba, egixe esatiarren, ez dakit ze esan. Ikuspegi orokorrien ez dot ueste urte ona izen danik; notizia onak baiño gehixau txarrak euki dittugu. Politikan, ekonomian... Gauzak ez dauz ondo.

Neuretako urte ona izen da; pertsonalki bai, behintzet. Hori bai, egoera politikue ez dot bape ondo ikusi. Politikuek ez daue berbarik egitten, eta jente zentzudune falta da.

Orokorrien ikusite urte txarra izen da. Hortxe dau gerrien kontue, *Prestige*-n kontue, egoera politikue be txarra izen da... Arlo pertsonalien, behintzet, urte ona izen da.

Pertsonalki urte ona izen da. Egoera politikue ez da bape ona izen, baiñe aurreko urteiek ez die hobiak izen. Plan berri asko bai, baiñe betiko martxan gabitz. Atxilotetak berdinegin dittue.

Urte ona izen dala ueste dot, niretako bai, behintzet. Orokorrien begittute, ezin gauza bera esan: *Prestige*-n kontue hor dau, gerrie be egon da... Holako kontu asko egon da.

### ETABARRUAN...

IKUSPEGIA	/3
ONENA ETA TXARRENA	/4-5
URTEA DATUTAN	/6
URTEKO AZALAK	/8
IRUDIAK	/30

URTEARI GAINBEGIRATUA

<b>Urtarrila</b>	<b>/11</b>
<b>Otsaila</b>	<b>/12</b>
<b>Martxoa</b>	<b>/13</b>
<b>Apirila</b>	<b>/14</b>
<b>Maiatza</b>	<b>/19</b>
<b>Ekaina</b>	<b>/20</b>
<b>Uztaila</b>	<b>/21</b>
<b>Abuztua</b>	<b>/22</b>
<b>Iraila</b>	<b>/25</b>
<b>Urria</b>	<b>/27</b>
<b>Azaroa</b>	<b>/28</b>
<b>Abendua</b>	<b>/29</b>

ARRASATE

### ZURIETABELTZ



**JOSEBA EZPELETA** / AEDko presidentea

### Herritarren inplikazioa

No es fácil, compañero", esaten dute Kuban, dituzten gabeziei aurre egiterakoan eta beste horrenbeste esan genezake herri mugimenduetan gabiltzanok.

AEDn daramatzadan urteetan, zuzendari-tzarako kide berriak bilatzen hasten garenean, urtero gure artean kontu berdinarekin bueltaka hasten gara; hautagai posibleen zerrendak egin, nola egin harremanak, geurera erakartzeko zein taktika erabili, nork egin dezakeen kontaktua, etab.

Urtero-urtero aldatu izan ohi ditugu hiruzpalau kide, baina ez zaigu batere erraza egiten, egia da. Zergatik? Mila bazkideren artean bost elkarteentzako zuzendaritza kideak topatu behar ditugulako.

Arrasateko biztanleen %4,3a AEDko bazkidea da, hau da, ehun arrasatearretatik ia bost AEDko bazkide da, oso kopuru altua. Asko izan arren, bost

elkarteen artean banatu behar ditugu eta urtero nolabaiteko ehiza hasten dugu. Baina zuzendaritzak berritzea lortzen dugu, arrasatearren inplikazioa eta motibazioa, oro har, ona delako. Ona bai baina ez nahikoa, ordea, nahikoa sekula ez delako eta gehiago egin ahal dugulako. Ez da erraza, baina 20 urtetan AEDtik eta AEDk sortutako elkarteetako zuzendaritzatetik, nik bakarrik jarraitzen dut eta beste bederatzia berriak dira.

**"Euskalgintzak egoeraren diagnostikoa eginda daukagu; militantziarako potentzialitatea handia da"**

Arrasateko euskalgintzak egoeraren diagnostikoa eginda daukagu eta AMIA matrizea ere definituta daukagu. Aukeren artean, herritarren inplikazioa eta motibazioa jasota daukagu eta indarguneen artean, militantziarako potentzialitate handia dagoela jasota daukagu. Beraz, ez da nire inpresioa bakarrik, euskalgintzaren diagnostikoak ere hortik jotzen du. Orain arte lortu dugu. Aurrerantzean ere, hala bedi!



**JOSE LUIS EZKURRA** / Mondra futbol taldeko presidentea

### Gazteen errelebu

Mondran ibili aurretik, Makatzena futbol taldeko batzarrean lanean ibili nintzen, Luis Lopez *Bonba* eta Roman Lopez *Rubio*-rekin batera. Hortik pare bat urtera, Mondra futbol taldeko presidente kargua hartu nuen, Pablo Zubillagak hala eskatuta. Guztira, 17 bat urte daramatzat lan horretan.

Gogoan daukat ni presidente hasi nintzenean herritarren aldetik borondate handia zegoela. Esaterako, herriko koadrilek Iturripeko tabernan lan egiten zutela. Gero, poliki-poliki, herrian kirol talde gehiago sortu dira eta halako lanak egiten dituztenak talde gehiagotan sakabana-tu dira. Kirol talde gehiago daude, baina lagun kopurua ez da handitu.

Azkeneko urteotan dezente nabaritu da Mondra futbol taldean boluntarioen hutsunea dagoela. Gutxinaka izan da,

baina gaur egun laguntza behar dugunean futbol zelaian egoten direnei eskatzen diegu. Lehen ez zen halakorik gertatzen.

Orain dela urte batzuk, lan kontuengatik pare bat urtez

Mondrako ardurak alde batera utzi nituen, eta bueltatu nintzenean, boluntarioen eskasia handia sumatu nuen.

Beste herrietan eta kirol taldeetan ere gauza berdina gertatzen da. Zoritarrez, halako elkarte eta taldeetan

batzarretan lan egiten dugunok nagusi samarrak gara, eta automaten moduan lan egiten dugu. Askotan, gazteen beharra daukagu, errelebu hartzeko eta ideia berriak sartzeko.

Bestalde, herriko hainbat kirol taldek Mondrak baino azpiegitura txarragoak dituzte: errugbiak, atletismoak... horien instalazioak hobetuz gero, herritarrek motibazio handiagoa hartuko lukete, eta inplikazioa gehituko litzateke.

## Arrasate PRESS

Otalora Lizentziaduna, z/b  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Gontzal Landa  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.392 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia




Arrasateko  
Udala




Aramaioko  
Udala

# ONENA ETA TXARRRENA

Joan den urtean bezala, aurten ere urtean zehar izan diren gertakari on eta txarrak aukeratzeko eskatu diegu hamazazpi herritarri. Eta, beste behin, gauza txarrak aukeratzeko orduan non aukeratu badagoela adierazi dute gehienek. Seinale txarra da hori. Gauza onak aukeratzeko orduan, askok gertuko kontuak aukeratu dituzte; txarrak, berriz, gertukoak, Estatu mailakoak, nazioartekoak...



**DIEGO MARTIARTU**  
'Putz'-eko 'erredartaburua'



**NAGORE ZUBIZARRETA**  
AEDko idazkaria

**↑ DUINTASUNAREN BOTOAK**

Apartheidaren udal hauteskundeetan herri plataformak eta AuBk jasotako milaka eta milaka boto errebeldeak, *putxerazoa* agerian jarri zutenak. Duintasunez, makurtu barik.

**↑ HERRIAREN ERANTZUNA**

Euskalgintzak jaso dituen erasoen aurrean euskal gizarteak hain epe laburrean egin duen lana eta eraso horiei eman dien erantzuna, eta euskalgintzari eman dioten babesak.

**↓ AGINTARI PSIKOPATAK**

Bush, Blair, Berlusconi, Sharon eta Aznar bezalako agintari psikopata-faxistek daukaten inpunitatea, gizatasun arrastorik txikiena ere mapatik ezabatzeo ahaleginean.

**↓ EUSKALGINTZARI ERASOAK**

Euskalgintzak jasandako erasoekin euskararen normalizazioaren aldeko jarduerak zigortzea. Euskal Herriaren izaeraren elementurik funtsezkoenak eta guztion ondarea dira.




**AGURNE JULDAIN**  
Txatxilipurdiko langilea



**JOSE RIVIERE**  
Abaroa elkarteko idazkaria



**ONINTZE GURIDI**  
Gazte batzarreko kidea



**JUAN CORRAL**  
Musikaria



**ISABEL ARAMENDIA**  
Museoko teknikaria

**↑ SAHARAKO UMEAK**

Saharako umeekin bizi izandako esperientzia. Izugarri bete nau esperientzia horrek. Eurekin asko ikasi dut. Hurrengo urtea noiz helduko zain nago, umeak berriro ere ikusteko.

**↑ ABAROAREN BILAKAERA**

Abaroa elkarteak geroago eta bazkide gehiago ditu, eta ekimen gehiago antolatzen ditugu. Are gehiago, antolatzen ditugun ekintzetan parte-hartzea geroago eta handiagoa da.

**↑ TRATU TXARRAK SALATU**

Tratu txarrak gertatzea oso larria bada ere, salaketak egiten dituzten emakumeak geroago eta gehiago izatea onuragarria da. Salatu barik ez dugu arazo hori inoiz konponduko.

**↑ EUSKALDUNON ERREAKZIOA**

Eraso guztien aurrean, euskaldunok erantzuteko izan dugun gaitasuna, hedabideak abian jarri ditugu berriro eta protesta kalera atera dugu. Pertsonak espetxeratu dituzte, baina ez ideiak.

**↑ MUSEOA ARRASATEN**

Museoko teknikaria naitenez, Arrasateko alkateak orain dela gutxi esandako gauza batek esperantza piztu du niregan: gure museoak egoitza duin bat izango duela, akaso, Gelman.

**↓ EUSKARARI ERASOAK**

Euskara eta politika nahasteko joera handia dute, euskarari kalte egiteko. Ez nago ados horrekin guztiorrekin, eta euskalgintza jasaten ari den eraso guztiak gaitzetsi egiten ditut.

**↓ GARRAIO PUBLIKOA**

Ibarrean daukagun garraio publikoa lotsagarria da. Aldundiko Garraio arduradunak esan zuen horren gaineko ikerketa egiteko lau bat urte beharko dituztela. Hori ez da serioa!

**↓ EUSKAL HERRIAREN AURKA**

Aspaldian Euskal Herria eta, besteak beste, gazteria jasaten ari diren erasoak. Sekula baino preso gehiago daude, *Egun-karia* itxi egin dute, alderdi politikoak legez kanpo utzi dituzte...

**↓ SALBUESPEN EGOERA**

Salbuespen egoeran bizi gara. Espainiako alderdiek hedabideak itxi, erakundeak legez kanpo utzi eta lagun mordoa espetxeratzeko dihardute. Zer esanik ez, hauteskundeetako *putxerazoa*.

**↓ MUNDUA LARRI**

Orokorrean, munduan gertatu diren gauza asko; tartean, Iraki egindako erasoak. Baita Euskal Herrian azkenaldian gertatu diren erasoak ere: *Egun-karia* itxita, Enrike Letonaren egoera...

**LANDALUZE**  
**HARATEGIA URDAITEGIA**  
ITURBIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86  
**ARRASATE**

Zorionak eta urte berri on!





**ANTONIO MURILLO**  
Tabernaria




**ISA CASADO**  
Atleta



**GAIZKA ERAÑA**  
Arizmendiko irakaslea



**AGUSTIN GALLASTEGI**  
Mekanikaria



**JON BASURKO**  
Saskibalo taldeko presidentea

**↑ NAFARROA OINEZI LAGUNDU**  
Aurtengo Nafarroa Oinez argi geratu da beharra dagoenean euskaldunok erantzuteko gai garela. Beste batzuetan, baina, motz geratzen garela esango nuke.

**↑ MENDIKO LASTERKETAK**  
Aurten mendiko lasterketan parte hartzen hasi naiz, eta gustura ibili naiz. Niretako hori izan da aurtengo gauza onenetako bat, oso esperientzia aberasgarria izan da-eta.

**↑ GERO ETA UME GEHIAGO**  
Zorionez, gero eta ume gehiago ikusten ditut herriko kaleetan, eta baita lagun artean ere. Hori oso pozgarria da; azken baten, herri honetako etorkizuna dira-eta.

**↑ REALAREKIN GOZATU**  
Urteko gauza positiboetako bat da Realeko jarraitzaileok aspaldiko partez gure taldearekin gozatzeko aukera izan dugula. Futbola gustuko ez dutenek ere poztu egin dira.

**↑ GARRAIO PUBLIKO HOBERANTZ**  
Ibarreko garraiobideak hobetzeko proiektu interesgarriak daude; tranbia, esaterako. Ea garraiobide publiko, erabilerraz eta azkarraren alde egingen dugun.

**↓ ESKUBIDE URRATZE ASKO**  
Urtean zehar eskubide urratze asko izan dira: *Egunkaria*-ren itxiera... Eta iruditzen zait ez dugula behar den moduan erantzun. Badirudi horrelakoak gertatzea normala dela.

**↓ 'PRESTIGE'-REN ONDORIOAK**  
Orain dela urtebete hondoratu zen *Prestige* itsasontzia, eta oraindik ere ondorioak sufritzen gabilta. Dagoeneko ez da albiste; eta urte asko pasako dira hori konpondu orduko.

**↓ EGOERA POLITIKOA**  
Egoera politikoa ez da bate-rea ona izan, besteak beste, alderdi bat legez kanpo utzi dute-eta. Askatasun falta sumatzen dut, eta pentsamendu bakarra dabil nagusitzen; hemen eta mundu osoan.

**↓ EGOERA POLITIKO ALDREBESA**  
Gerra kontuak direla, hemengo arazo politikoa dela... Aldrebestuta daude gauza asko, eta ez dut konponbiderik ikusten. Berehala erabakitzen dugu nor den gaiztoa eta nor ez.

**↓ KIROL TALDEEN EGOERA**  
Herriko kirol taldeen egoera eutsiezina da. Gauzak aldatu egin behar dira; Arrasateko kirol taldeen etorkizuna ezin da gutxi batzuek denbora librean egiten duten lanaren mende egon.



**AGURTZANE BARRUTIA**  
Arrasate Herri Eskolako zuzendaria



**MALEN ERRASTI**  
ESK sindikatuko kidea



**ARANTZA ALONSO**  
Etxekoandrea



**ESTHER LIZARRALDE**  
Emakume Txokoko arduraduna



**MAIDER OSA**  
Kazetaria

**↑ HERRI ESKOLAK BATERA**  
Arrasateko herri eskolak batu, Arrasate Herri Eskola sortu eta modu horretan egin dugun lehenengo urtea esperientzia ona eta aberasgarria izan dela uste dut.

**↑ ITURGAITZ HARRAPATUTA**  
Legebiltzarrean Carlos Iturgaitz tranpa egiten harrapatu zutela eta Kataluniako hauteskundeetan errepublikarrek gora egin dutela. Hori nabarmenduko nituzke.

**↑ MEDIKUNTZA ETA AITA SANTUA**  
Kolesterolari aurre egiteko medikamentua; Egiptoko siamarrak arrakastarekin banandu zituztela; Amina Lawal ez zutela harrika hil; eta Joan Paulo II.ak 25 urte bete dituela aita santu.

**↑ EMAKUME TXOKOA ZABALIK**  
Emakumeen heziketarako eta informaziorako gune berria da. Emakume, gizon zein elkarrean topaleku eta elkarlanerako lekua izan nahi du. Aukera berdintasunaren bidean garrantzitsua da.

**↑ EGUNKARI BERRIA**  
Euskaldunagoa? Oso zaila zegoen. Independentegoa? Ez zen erraza. Pluralagoa? Zein bezain plurala? Hobe? Hoberena zen. Baina hobetu dugu. Berria berri.

**↓ KALITATE LEGEA**  
Irakaskuntzari dagokionez, aurten legezatu dute Kalitate Legea. Ikasleen artean desberdintasunak handitu egingo ditu lege horrek; horren ondorioak gertatzen islatuko dira gero.

**↓ ERASOAK ETA HONDAMENDIAK**  
Lau gauza nabarmenduko nituzke: Iraken inbasioa, *Prestige*-k eragindako hondamendia; Euskal Herrian gertatzen dabilen jazarpen egoera eta indarkeria sexistak gora egin duela.

**↓ GAITZ UGARI**  
Israelgo hesia; Bagdaden Gurutze Gorrikoei egindako eraso; 30 segundoro ume bat hiltzen dela munduan, malariak jota; zazpi minutu eta erdiro abortu bat egiten dutela Espainian.

**↓ INDARKERIAK, GORA**  
Emakumeenganako indarkeriak gora egin du; diskriminazioak irauten duen bitartean emakumeei eraso egingo digute. Erantzukizunak zehaztu eta neurri eraginkorrak hartu behar dira.

**↓ PRESOK ETA ASKATASUNA**  
Aurten ere euskal preso politikoen hiru senide kartzelarako bidean hil dira. Eta ezin izan dugu notizia hori *Egunkaria*-n irakurri, adierazpen askatasuna bera ere preso dagoelako.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

**Aretz**  
**Taberna**

Markole 5  
943 79 14 67  
**ARETXABALETA**

**ARPE**

**Ile apaindegirako artikuluak**

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

# URTEA DATUTAN

Urtekariak urtea laburtzea izaten du helburu, eta hori ez da batere erraza. Geroago eta gehiago erosten ei dugu, baina euroekin dena garestitu da. Arrasateko Ford-ek urte biribila

izan du. Horrez gainera, Amaia Udal Antzokiko zineklubean gehien ikusi den filma La Pelota Vasca izan da. Eta SPraiko tranbia izan da, berriz, euskarazko liburu salduena.



## LIBURU salduenak

### EUSKARAZ

1. 'SPRAKO TRANBIA' Unai Elorriaga
2. 'Arrasate 1936 Belaunaldi etena' Oktubre Taldea
3. 'Kutxidazu bidea Ixabel' J. Sagastizabal
4. 'Arrasate Irudiak' Argitan Kultur Elkarte

### GAZTELANIAZ

1. 'LA SOMBRA DEL VIENTO' Ruiz Zafon
2. 'Arrasate 1936 Una generación cortada' Oktubre Taldea
3. 'El señor de la guerra' Toti Martínez de Lezea
4. 'Cartas a Euskadi' Antonio Álvarez Solís



## DISKO salduenak

### EUSKARAZ

1. 'BIDEAN' Ken 7
2. 'Euskarian' Askoren artean
3. '60ko hamarkadako kantak' Mikel Laboa
4. 'Kantuok jartzen ditut' Ruper Ordorika

### GAZTELANIAZ

1. 'LO QUE TE CONTE CUANDO...' La Oreja de Van Gogh
2. 'No es lo mismo' Alejandro Sanz
3. 'Fantasía o realidad' Alex Ubago
4. 'Divorcio' Julio Iglesias



## FILM ikusienak

1. 'La pelota vasca' Julio Medem
2. 'Bowling for Columbine' Michael Moore
3. 'Once de septiembre' Hainbat zuzendari
4. 'En la puta vida' Beatriz Flores
5. 'Historias minimas' Carlos Sorin
6. 'Domingo sangriento' Paul Greengrass
7. 'Ciudad de Dios' Fernando Meirelles eta Katia Lund
8. 'Pi' Darren Aronofsky
9. 'Kamchatka' Marcelo Piñeyro
10. 'Lugares comunes' Adolfo Aristarain



## BIDEO hartuenak

1. 'MATRIX RELOADED' Wachowsky anaiak
2. 'El señor de los anillos' Peter Jackson
3. 'Harry Potter' Chris Columbus
4. 'Ocean's eleven' Steven Soderbergh
5. 'El otro lado de la cama' Emilio Martínez
6. 'The core' John Amiel
7. 'Taxi 3' Gerard Krawczyk
8. 'Driven' Renny Harlin
9. 'Atrapada' Luis Mandoki
10. 'El americano impasible' Philip Noyce



## AUTO salduenak

1. FORD FOCUS 46 auto
2. Ford Mondeo 31 auto
3. Peugeot 307 31 auto
4. Renault Megane 30 auto
5. Opel Astra 25 auto
6. W. Passat 22 auto
7. Citroen Xsara 20 auto
8. W. Golf 16 auto
9. Seat Leon 14 auto
10. Opel Zafira 14 auto

## EGUNKARI salduenak

1. 'EL DIARIO VASCO'
2. 'Gara'
3. 'Marca'
4. 'Mundo Deportivo'
5. 'Berria'

## ALDIZKARI salduenak

1. 'PRONTO'
2. 'Hola'
3. 'Semana'
4. 'Lecturas'
5. 'Diez minutos'

## Egunik BEROENA

2003ko abuztuaren 4a

## Egunik HOTZENA

2003ko otsailaren 18a

## Egunik EURITSUENA

2003ko maiatzaren 16a

42 °C -5 °C 70,9 L

BIZILAGUN  
kopurua  
22.999

Jaiotakoak  
156

Hildakoak  
186

Etorritakoak  
440

Joandakoak  
489

ALDEA  
-79

Arrasaten joan den urtean baino 79 lagun gutxiago bizi gara: jaio direnak baino pertsona gehiago hil direlako; eta jendea herrira etorri bada ere, herritik joan direnak gehiago direlako. Horren arrazoiak bat Arrasaten etxebizitza lortzeko dagoen zailtasuna edo ezintasuna da.

Datu horiek ofizialak dira, baina behin-behinekoak. Datu zehatzak martxoan argitaratzen dituzte.



### Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak  
Egur aroztegia

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20



"PAL"

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria


Uribarri etorbidea 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,  
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
20500 ARRASATE

Urte berri on!





San Juan 1 A,  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

**UGARTE**  
AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





# CANAS - ESTEBAN S.L ERAIKUNTZAK

Urte berri zoriontsua  
Arrasatear guztioi!

Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxe: 943 79 81 80

Goienkaria-k  
hitzordua  
egin nahi du  
zurekin  
**ASTELEHENERO**

Egubakoitzez gain,  
astelehenetan ere badugu

- ✓ zer esan,
- ✓ zer erakutsi,
- ✓ zer proposatu.

Zure  
astelehenak... **gurekin**  
**Goienkaria**

## Harpidedun izan nahi duzu?

- Asteleheneko Goienkariaren aleak kioskoan erosita baino %20 merkeago aterako zaizu.
- Asteleheneko Goienkaria etxean (edo zuk esandako tokian) jasoko duzu.

**KIOSKOAN  
ASTERO  
0,80€**

**Goienkaria**

**25€**

**URTE OSOKO  
HARPIDETZA**

kioskoan baino  
**%20  
merkeago**

## harpidetzak

**merezi du... merezi dizu!**

- Gainera, orain harpidetuz gero, zure herriko euskararen idatzitako ipuin liburua **DOAN!**



**Nola harpidetu:**

Ondoko harpidetza txartela zure datuekin bete, ebaki eta postaz bidali helbide honetara: 3FD Posta Kutxa. 20500 Arrasate. Gipuzkoa.



902 36 38 51



943 79 22 93



astelehenekoa@goiena.com  
www.goiena.net

## HARPIDETZA TXARTELA

Izendeiturak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Tel.: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_ Kode postala: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Non jaso nahi duzu? Etxean  Kioskoan

Beste nonbait\*

Harpidedunaren kontu korrontea (20 zenbaki):

\_\_\_\_\_

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

\*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.



# ALEZ ALE

2003an, ARRASATE PRESSEK 43 zenbaki atera ditu, eta tartean aldizkariak 15 urte bete ditu. Urtean landutakoa hilabetez hilabete gainbegiratu dugu; aldizkariako azalek badute zer esan.



613. ZENBAKIA Umeak ezagutze eskolak. /2003-01-10



614. ZENBAKIA Saharako errefuxiatuei laguntza. /2003-01-17



615. ZENBAKIA Arrasateko Txistulari Taldea. /2003-01-24



616. ZENBAKIA Txuriurdin Realeko jarraizaleak. /2003-01-31



617. ZENBAKIA Mundukide Mozambiketan lanean. /2003-02-07



618. ZENBAKIA Gurpil eta taula gainean trebatzen. /2003-02-14



619. ZENBAKIA 2003ko Udal Aurrekontua. /2003-02-21



620. ZENBAKIA Aratusteak Arrasaten. /2003-02-28



621. ZENBAKIA Jaietan gaztetxoak protagonista. /2003-03-07



622. ZENBAKIA Ugaran eskualdea Arrasaten. /2003-03-14



623. ZENBAKIA Arrasateko kiliki eta erraldoien konpartsa. /2003-03-21



624. ZENBAKIA Arrasateko saltokiak egoera txarrean. /2003-03-28



625. ZENBAKIA Eskola-Antzerkia sustatzen. /2003-04-04



626. ZENBAKIA Gernika Oinezkoen Zumardia, gertu. /2003-04-11



627. ZENBAKIA Herrian irakurzaletasuna bultzatzen. /2003-04-18



628. ZENBAKIA Mondra preferentera bidean. /2003-05-09



629. ZENBAKIA Gaztetxe berriko lanen jarraipena. /2003-05-16



630. ZENBAKIA Mondra preferente mailako taldea. /2003-05-23



631. ZENBAKIA AED elkarteko Bertsolaritza Saila. /2003-05-30



632. ZENBAKIA Arrasate, 1936 'Belaunaldi etena' burua. /2003-06-06



633. ZENBAKIA 70eko hamarkadako rockaren jaia. /2003-06-13



634. ZENBAKIA San Juan jaiak Arrasaten. /2003-06-20



635. ZENBAKIA Jabi Mayor margotzen hasi da berriro. /2003-06-27



636. ZENBAKIA Uztailen kirola egiteko eskaintza zabala. /2003-07-04



637. ZENBAKIA Mac Jeara's Band taldea Arrasaten. /2003-07-11



638. ZENBAKIA 'Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea'. /2003-07-18



639. ZENBAKIA Arrasateko Udaltzarraren osatuta. /2003-07-24



640. ZENBAKIA AUKERAK gertu du kontrol eskaintza. /2003-08-05



641. ZENBAKIA Joxe Bixente Etxabe artzaina. /2003-09-12



642. ZENBAKIA Emakume Txokoa zabalik. /2003-09-19



643. ZENBAKIA Euskal Herriko tronboi jotzaileak. /2003-09-26



644. ZENBAKIA Maritxu Kajoi 2003. /2003-10-03



645. ZENBAKIA Eguenetako zinekluba abian da berriro. /2003-10-10



646. ZENBAKIA Markuleteko industrialdea. /2003-10-17



647. ZENBAKIA Arrasateko grafitilariak. /2003-10-24



648. ZENBAKIA Jokin Zaitegi itzulpen eta ikasketaren emaitza. /2003-10-31



649. ZENBAKIA Hip-hop festa egin dute gaztetxean. /2003-11-07



650. ZENBAKIA AED elkarteak 20 urte bete ditu. /2003-11-14



651. ZENBAKIA Torloju fabrika itxi egin dute. /2003-11-21



652. ZENBAKIA Pedro de Biteri filantropoari omenaldia. /2003-11-28



653. ZENBAKIA ARRASATE PRESSEK, 15 urte. /2003-12-05



654. ZENBAKIA Santamasetako herri krosa. /2003-12-12



655. ZENBAKIA Umeen gabonetako marrazki lehiaketa. /2003-12-19



**ALMACENES  
ARRASATE**

650 m<sup>2</sup> zure zerbitzura merkatuko  
marka onenekin:  
Fagor, Aspes, Bosch, Philips, Sony...

## ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA SUKALDEAK




Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 • Ordutegia: 09:00-13:00 eta 15:00-20:00 • Zapatu goizetan zabalik.



# ZUTARRI S.L.

## Eraikuntza enpresa

**Berritze lanak  
Barruko erreformak  
Obra berriak**

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Tel.: 943 79 67 78 / 639 77 86 90  
Zerkaosteta, 17 • 20500 ARRASATE

# URTARRILA



*"Ez dut inspirazioarekin lanik egiten; lan askorekin ideiak sortzen zaizkit"*

**OIHANA GARRO** / ESKULTURAGILEA  
2003-01-10



*"Realarekin kanpora joaterakoan, gastronomiaz ere gozatuko dugu"*

**ARANTZA ORUNA** / REALZALEA  
2003-01-31

## HILEKO ESALDIA

**"Berreskuratu gura ditugu duintasuna, nor-tasuna, zaletasuna eta txistuak galdutako tokia"**

**IÑAKI BARRENA** / TXISTULARIA  
2003-01-24

## HILEKODATUA

# 42

### LAGUN FUSILATU ZITUZTEN ESPAINIAKO GERRAN

Fusilatutakoen aldeko batzordeak jakinarazi zuenez, Arrasaten gutxienez 42 lagun fusilatzea agindu zuten. /2003-01-15



### Batzordea eratu zuten gerran fusilatutakoak gogora ekartzeko

Batzordeak jakinarazi zuenez, gutxienez 95 debagoiendar exekutatu zituzten; Arrasaten gutxienez 42 izan ziren. Fusilatutakoen senideek, ibarreko alkateek eta herritar ugari omenaldia egin zieten ekainaren 8an Laubide plazan. Ekitaldian monolito bat aurkeztu zuten jendaurrean. Monolitoak eraildako debagoiendar guztien izen-abizenak biltzen ditu. /2003-01-31

### WEBGUNEA ABIARAZI ZUEN ARRASATEKO UDALAK

↑ Eibarko Code&Syntax enpresak diseinatu zuen. Helbidea hauxe da: [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org). /2003-01-31

### GABONETAKO JAIOTZAN KALTEAK

↓ Hala ere, 2001-2002ko jaiotzak baino kalte txikiagoak jasan zituen, San Andresko parrokiako kideen hitzetan. /2003-01-10

## AIPAGARRI



**MARKEL BLANCO**  
Lasterkaria



**JABIER ETXAGIBEL**  
Idazlea




**MELINA LOPEZ**  
Eskulturagilea

Arrasateko gaztea lehena izan zen Juan Mugertza kroseto infantil mailan. Marifran Alonso hirugarrena izan zen, emakumeen artean. /2003-01-17

Jabier Etxagibel eta Ernesto Murillo *Simonides* nafarra dira *Dolor de dientes* komiki-liburuaren egileak. Mutil baten bizipenak kontatzen ditu. /2003-01-24


Gazte arrasatearrak lortu zuen Udaleko Emakume Sailak ateratako beka. Aurkeztutako lanarekin, langile guztiak omendu nahi izan zituen. /2003-01-31



## JOXAN

### BITXITEGIA ETA ERLOJU DENDA

Portaloia 8  
Tel.: 943 79 22 24  
ARRASATE



**"Erloju on bat edonoren eskuetan egon daiteke"**

# OTSAILA



*"Pentsamendu bakarraren aurrean ideia berriak asmatu behar ditugu"*

**XABIER ZUBIZARRETA** / HERRI ANITZA

2003-02-14



*"Hainbat alderdik beste alde batera begiratzen dute"*

**PACO GARCIA** / PSE-EE

2003-02-14



## 2003ko aurrekontua onartu zuten SA, EA eta EBren botoei esker

Udalbatzarraren gehiengoak onartu zuen aurrekontua. Guztira, 27.371.113,75 euro. EAJko eta PSE-EEko zinegotziek aurka bozkatu zuten. PPko ordezkaria, berriz, ez zen egon. Paco Garciak zera esan zuen: "Aurrekontua ez da herri honetako bakearen eta bizikidetzaren aldekoa". Halaber, Jose Mari Loiti (EAJ) aurrekontua adosteko ezintasunaz mintzatu zen. /2003-02-28

## HILEKOESALDIA

**"2002an 127 tortura kasu salatu ziren; horietatik 36 Ertzaintzaren eskuetan egondakoenak dira"**

**TORTURAREN AURKAKO TALDEA**

2003-02-14

## HILEKODATUA

# 6.031

**KILO JAKI JASO DITUZTE SAHARARA BIDALTZEKO**

Sahararen aldeko kanpainak sei tona jaki baino gehiago biltzea lortu du. Tartean, ikastetxeak aritu dira lanean. /2003-02-14

## 'EGUNKARIA'-REKIKO ELKARTASUNA

↑ Hainbat dendarik *Egunkaria*-ren ale bana jarri dute euren dendetako erakusleihoetan. /2003-03-07

## ATXABALPE FUTBOL ZELAIA EGOERA TXARREAN

↓ Zelaia hilean bitan bakarrik erabiltzen da. Beraz, mantentze lanak ez dira behar den moduan egin. /2003-02-14


## AIPAGARRI



**BEÑAT ARTZADUN**  
Mundukide



**GORKA ZUBIZARRETA**  
Diseinatzailea



**FELIX AIALA**  
Margolaria

Borondatezko lankide honek bi urte emango ditu Mozambiken lanean. Proiektuaren helburua da Marrupa izeneko eskualdearen garapena. /2003-02-07

Gazte honek diseinatu zuen Arrasateko Gazte Kontseiluaren logotipoa. Logotipoa aukeratzeko lehiaketan 66 lagunek parte hartu zuten. /2003-02-14

Margolan erakusketari jarri zuen Felixek Harresi aretoan. Bertan, olio teknikarekin margotutako 44 lan egon ziren ikusgai, horietako batzuk salgai. /2003-02-07



Urte berri on!!!

Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña

**ANE LASAGABASTER**  
HORTZ KLINIKA




- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68  
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

# MARTXOA



*"Musikaria izateko denbora luzea behar da, eta diru asko inbertitu"*

**UNAI URRETZO** / TRONBOI JOTZAILEA  
2003-03-14



*"Heziketa fisikoa izugarritzko baliabide pedagogikoa izan daiteke"*

**LUIS MARI ZULAIKA** / IRAKASLEA  
2003-03-14

## HILEKOESALDIA

**"Emakumeek jasaten duten pobrezari aurre egiteko Oinarrizko Errenta tresnarik onena da"**

**IÑAKI GARRO** / ESK SINDIKATUKOIA  
2003-03-14

## HILEKODATUA

# 460

**HARPIDETZA GURA ZITUZTEN 'EGUNKARIA'-REDAKO**

Horrez gainera, Egunkaria Aurrera herri batzordeak *Berria* sortzeko dirua batzeko asmoa ere agertu zuen. /2003-03-14



### Zahar eta gazte Zuhaitz Egunean

Gaztetxoek eta erretiratuek Zuhaitz Egunean parte hartu zuten hilaren 18an. Hain zuzen, Udalako Ingurugiro Eskolak antolatuta, dozenaka pago landatu zituzten Garagartzako soro batean.

Seigarren mailako 200 neska-mutikok eta hainbat erretiraturik egin zuten lan soroan. Aitzurrari eman eta eman, makina bat lan izan zuten zahar nahiz gazteen besoek. Gaztetxoek sasoi hobea erakutsi zuten eta nagusiek, berriz, sekulako abilezia erakutsi zuten soro lanetan. Guztien artean lan biribila egin zuten.

Udalako Ingurugiro Eskolaren ekimen horren helburuetako bat zuhaitzen bizi-erapena ziurtatzea izan zen. Basoetan geroago eta gehiago estimatzen da pagoen freskotasuna, edertasuna eta presentzia. /2003-03-21


### ESKOLA INGURUETAKO BIDE-SEINALEAK

↑ Bide-seinale gehiago jarri zituzten Ferixalekuko zebrabideen alboan. Txalotzeko modukoa. /2003-03-07

### LAPURRETA ETA LAPURRETA SAIAKERAK

↓ Ezezagun batzuek Sportland-en lapurtu zuten. Hermanos Alonso zapata dendan ere saiatu ziren. /2003-03-28

## AIPAGARRI



**ANDER RODRIGUEZ**  
Brigadista

Gerraren Aurkako Euskal Herriko Brigadaren kide hau Iraken egon zen, inbasio garaian. Han, irakiarrei elkartasuna adierazi nahi izan zien. /2003-03-28



**FERNANDO BIDERBOST**  
Margolaria

Fernando Biderbost margolari bilbotarrak margolanen erakusketa ipini zuen Arregi galerian. Ospe handiko margolaria da Biderbost. /2003-03-07



**MARCELINO RUIZ**  
Margolaria

Erakusketa jarri zuen Harresi aretoan. Guztira 68 lan jarri zituen ikusgai. Margolari honek hainbat teknika erabiltzen ditu: pastela, olio... /2003-03-28

**CAMPER**

**GEOX**  
EL ZAPATO QUE RESPIRA

**STONEFLY**  
ABSOLUTE COMFORT

**VELETTO**



# egizabal oinetakoak

ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601


BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

# APIRILA



*"Gure hezkuntza sistema sortzeko eskubidea aldarrikatzen dut"*

**FELIX ORMAETXEA** / ZUZENDARI OHIA  
2003-04-30



*"Udaletik ezin da beti lagundu; arantza txiki batzuk geratu zaizkit"*

**XABIER ZUBIZARRETA** / ALKATE OHIA  
2003-04-11



## Gernika Oinezkoen Zumardiaren zati berria inauguratu dute

Udaleko ordezkariak eta Arrasate Herri Eskolako ume mordo batek inauguratu zuten Gernika Oinezkoen Zumardiko zati berria. Zati honek lotzen ditu Monterron parkea eta Erguin auzoa. Lanak 2001ean hasi ziren, eta 60 metro luze den zubia eraiki behar izan zuten. Horrez gain, Monterrongo garaje zahar bat egokitu zuten, eta bertan komun publikoak daude orain. /2003-04-11

## HILEKOESALDIA

**"Ezin izango dugu euskararen normalizazioa bermatu, ofizialtasuna eta transmisioa ziurtatu arte"**

**ITXARO ARTOLA** / KORRIKA KULTURALA  
2003-04-11

## HILEKODATUA

# 4

## BANKETXETAN EGIN DAITEKE ERRENTA AITORPENA

Banco Gipuzcoanon, La Caixan, Gipuzkoako Kutxan eta Euskadiko Kutxan. Euskaraz egiteko aukera izan zen. /2003-04-16


## INOIZ BAINO TALDE GEHIAGO KORRIKAN

↑ Guztira 30 taldek erosi zuten Korrikako kilometro bana. Gainera, herritar askok korrika egin zuten. /2003-04-04

## AUTOAK EDONON ETA EDONOLA APARKATUTA

↓ Herrian aparkatzea oso gaitza da, baina gidari batzuek oinezkoei oso errespetu txikia erakusten diete. /2003-04-04

## AIPAGARRI




**JUANJO SAN MIGUEL**  
Kazetaria

Nazioarteko gaietan aditua da, eta askotan atzerrian egoten da berriemaile. Azkena Jordanian. Orain hogeitun urte hasi zen Euskadi Irratian lanean. /2003-04-11



**URTZI MENDIZABAL**  
Biologoa

Herri inguruko ekosistemak aztertu zituen, eta *Arrasateko Txoko Naturalak* liburua argitaratu zuen, Rosa Agirrebeña bergararrarekin batera. /2003-04-30



**ANDER LANDALUZE**  
Harakina

Salegi harategia hirugarrena izan zen Bilbo Hiria Etxeko Txorizo Txapelketan, eta Gipuzkoako Merkatari Elkarteak Landaluze saritu zuen. /2003-04-04

# Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak,  
bokatak, eguneko  
menuak, karta.

2004a ere oparoa izan dadila!

Otalora lizentziatua 10  
Tel.: 943 77 20 04  
ARRASATE

Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Eguberri on!

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. DHL markapean bildudira Guipuzcoana EuroExpress, paketeen alorrean Europako burudena, DHL Worldwide Express aireko garraio espresetan munduko burudena eta Danzas, aireko eta itsaso koza mena alorrean munduko burudena Hondara rehobegadaren zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukeragehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharake doze indira ere, horieierantzunareteko prest gaudete. Jarraituz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
San Juan Erreka 33  
20570 - Bergara  
Tel.: 943 763 642  
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 



Kimetz



Gure leku



Boliñete



Okoretegi



Itzala



Rumba



Ezkiña

GABONET

Jai zorionuzti





Monte



Iturriotz



Ekaitz



Biona



Lora



ati

ETIZARRAK

rioztionzat!

argi berri bat piztu da

■ Komunikazio planen eta kanpainen lantzea. ■ Komunikazio grafikoa. ■ Publizitatearen kontratazioa eta gestioa euskarazko herri komunikabideetan. ■ Hesi- edo publizitate kanpo-euskarri estatikoen ustiaketa. ■ Web orrien sorkuntza eta kudeaketa.

 **arteman**  
komunikazioa

Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE • Gipuzkoa  
Tel.: 943 71 10 10 • Faxe: 943 79 22 93  
arteman@arteman.org • www.arteman.org

# MAIATZA



*"1976ko martxoaren 3ko sarraskien biktimek lanean dihardute"*

**IKER BARANDIARAN / KAZETARIA**

2003-05-09



*"Komeni da bi urtean behin teknikaz eta gaiez zeharo aldatzea"*

**RAMON PEREZ / MARGOLARIA**

2003-05-23

## HILEKOESALDIA

**"Eskandalua da 2003. urtean hainbeste jende lanean hiltzea; antzinako kontua dirudi"**

**UNAI MARTINEZ / ELA SINDIKATUKOA**

2003-05-09

## HILEKODATUA

# 476

**ETXEBIZITZA SOZIAL ERAIKIKO DITUZTE**

Etxebizitza batzuk alokairuan hartzeko izango dira eta beste batzuk lurralde eskubide gisa erabiltzeko. /2003-05-30



### EMAKUME TXOKOAREN INAUGURAZIOA

↑ Txokoak ateak parez pare ireki zituen maiatzaren 21ean. Bere helburua da berdintasunerako gune izatea. /2003-05-23

### ZABORRA, LEKUZ ETA ORDUZ KANPO

↓ Batzuek zaborra botatzeko ordutegia ez dute betetzen, ez eta zaborra edukiontzien barruan utzi ere. /2003-05-23

## AIPAGARRI



**ENRIKE LETONA**  
Preso politikoa

Kartzelan izan zuten 16 urtez. Maiatzean, berriz, aske geratu zen. Hala ere, uztailean berriro sartu zuten kartzelan, isolamendu erregimenean. /2003-05-23



**JON MURUA**  
Futbolaria

Mondra taldeko aurrelaria erregional mailako *pitxitxia* izan zen. Gainera, Arrasateko futbol taldeak preferente mailara igotzea lortu zuen. /2003-05-23



**IBAN GALAN**  
Karateka

2002ko AUKEA sarietan, kirolari onenaren saria Iban Galan mondragoetarrak jaso zuen. Taldeen artean, Debagoiena Zikloturista Taldeak jaso zuen. /2003-05-16

### EAJ-EA koalizioak alkatetza lortu zuen ezohiko hauteskundeetan

Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak egin ziren maiatzaren 25ean. EAJ-EA koalizioak alkatetza eta zortzi zinegotzi lortu zituen, PSE-EEk bost zinegotzi eta IU-EBk, PPK eta Aralarrek bina zinegotzi. Espainiako justiziak onartu ez zuen aukera politiko bakarrak, Herri Anitza plataformak, boto guztien %20,3 lortu zituen. Hala ere, ez du ordezkariarik udalbatzarrean. /2003-05-30



# kurruxko

**Javier Ayani Aramburuzabalaga**

*Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia*

Bañez Doktorea 12 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 57

# EKAINA



*"Euskaldunon egitura politikorik izan bada, hori Nafarroa izan da"*

**GAIZKA ARANGUREN / NABARRALDE**  
2003-06-13



*"Homosexualok ezkontzeko eta umeak adoptatzeko eskubidea izan gura dugu"*

**TXERRA BOLINAGA / GAYTASUNA**  
2003-06-27

## HILEKOESALDIA

**"Gizarte honetan ez dut sumatzen gauzak aldatzeko borondate izpirik ere; zeharo moldatuta gaude"**

**IKER EZPELETA / NATURAZALEA**  
2003-06-06

## HILEKODATUA

# 70

**KILO BOTIKA ERAMAN ZITUZTEN NIKARAGUARA**

Gainera, Iñaki Agiriano medikuak eta bi erizainek kontsultak pasatu zituzten eta eskolak eman zituzten Nikaraguan. /2003-06-06



### Jende gutxi parte hartu zuen sanjuanetako ekitaldi ugarietan

Gaupasazale gutxi ikusi ziren gure kaleetan, eta, adituen iritziz, jaiak "larregiko lasaiak" izan ziren. Hala ere, hainbat ekitaldi nahiko jendetsuak izan ziren; gutxi egin zuten kale Errementari Dantzan eta skate jaiak gazte dezente erakarri zuten. Gauez mariachiak, Benito Lertxundiren doinuak eta rock kontzertuak izan ziren musikazaleen arreta-guneak. /2002-03-01

### ERAKUSKETA, FUSILATUTAKOAK GOGORATZEKO

↑ Erakusketa batek bildu zituen Espainiako gerran fusilatu zituzten debagoiendarren izen-abizenak. /2003-06-06

### GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRUA AGORTU


↓ Eusko Jaurlaritzak kasu hauetarako Udalari eman dion dirua ez da nahikoa izan azken hiru urteetan. /2003-06-13

## AIPAGARRI



**INAZIO LAKUNTZA**  
Alkatea

Kargua hartu zuen ekainaren 14an egin-dako osoko bilkuran. Herri Anitzako kideak ere bertan izan ziren, eta beraiei dagozkien karguak eskatu. /2003-06-13




**JABI MAYOR**  
Margolaria

2002ko amaieran erakusketa bat jartzea erabaki zuen. Hala, kolore biziko margolanak egiteari ekin zion, eta ekainean erakusketa ireki zuen. /2003-06-27



**JOSU TORNAV**  
Xakelaria

Espainiako Xake Bizkorreko Txapelketan parte hartu zuen. 2002an txapelketa irabazi zuen, baina aurten ez da hain fin aritu, eta 58.a amaitu du. /2003-06-06



**2004 urtean ere zure ikusuran ibili!**

**Ferrerias 35 Arrasate**

Tel : 943 77 13 78

Ordutegia: Astelehenerik ostiralera 09:30-20:00. Larunbatetan: 08:00-14:00

*Gorka Leizaola*

# UZTAILA



*"Ordenagailuek arte sorkuntza egiteko aukera mordoa ematen dute"*

**ELISA ESPINA / ARTISTA**  
2003-07-04



*"Udalak herriko mugarrak errekuperatu beharko lituzke"*

**XABIN MARTIARTU / ERRETIRATUA**  
2003-07-18

## HILEKOESALDIA

**"Esaten denez, munduan dauden 7.000 hizkuntzetatik erdia-edo mende honetan desagertuko da"**


**JULEN AREXOLALEIBA / IRAKASLEA**  
2003-07-04

## HILEKODATUA

# 3.600

**EURO EMAN ZITUEN UDALAK LANPOSTU BAKOITZEKO**

Planari esker, sortutako lanpostu berri bakoitzarengatik, enpresak 3.600 euroko dirulaguntza jaso zuen. /2003-07-18



### Aurkikuntza garrantzitsua

Maskor bat topatu zuten Leze Txikiko indusketetan. Antza, han bizi izandako azken Neanderthalgo gizakiek apaingarri moduan erabili zituzten maskorrak. Maskorra txikia da, baina pieza esanguratsua izan liteke, argi dezakeelako zelakoa izan zen Neanderthalgo gizakien eta lehen Cro-Magnongo gizakien arteko igarobidea.

Izan ere, orain gutxira arte arkeologoen uste izan dute Neanderthalgo gizakia sasi-tximinoa zela, eta portiera kultural garaturik ez zuela. Azkenaldian, ordea, teoria hori kolokan jartzen duten hainbat aurkikuntza eta ikerketa egin dituzte. Leze Txikin aurkitutako maskorra landua izan zela ikusten badute, Neanderthalgo gizakia kulturalki orain arte uste zena baino garatuago zegoela frogatuko dute. /2003-07-24

### UME SAHARARRAK GURE ARTEAN

↑ Zortzi ume sahararrek herriko hainbat familiaren etxetan egonaldia egin zuten. Ekimena, txalotzekoa. /2003-07-11

### EUSKAL PRESOK ISOLAMENDUAN

↓ Hainbat sindikatu eta taldeetako ordezkariak salatu zuten preso politikoen egoera, kale agerraldi batean. /2003-07-24

## AIPAGARRI



**AMAIA ARROYO**  
Idazlea

*Yo contra yo. La cara oculta de Anna* liburua idatzi zuen. Bertan anorexia gaixotasunaren gainean dihardu, eta bere bizipenak kontatzen ditu. /2003-07-11



**LORENTXO ALTUBE**  
Erretiratua

Erakusketa pribatua zabaldu zuen. Bertan ikusgai daude berak urtetan landutako musika tresnak, bai eta antzinako baserri tresna zaharberriak ere. /2003-07-04



**JONATHAN PEREZ**  
Atleta

Berriro urrezko domina lortu zuen Euskadiko Atletismo Txapelketan. 4,70 metroko pertika-jauzia lortu zuen, Mendizorrotzako pistetan. /2003-07-04



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

# Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50



**Bonaventure Diesel**  
**Pepe Levis**

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

# UGARAN

## jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE


# JOSE ANTONIO

gizonezkoen ile apaindegia

*Gabon zoriontsuak!!*

Otalora lizentziaduna, 22 • ARRASATE • Tel.: 943 79 42 10

# ABUZZTUA



*"Noiz erantzungo dugu gure osotasunean? Garaia dela uste dut..."*

**ENRIKE LETONA** / PRESO POLITIKOA  
2003-09-12



*"Zortzi urte eman ditut Debagoienean; hemengo jendea ona da, benetan"*

**JOSE ANGEL AGIRRE** / ABADEA  
2003-09-05

ISTRIPUAK

## Herriko hiru gazte atzerriko errepideetan hil ziren

Oso berri txarrak heldu zitzaizkigun Sahararik eta AEBetatik. Saharan Mikel Biteri eta Jon Zabala auto istripuan hil ziren, eta hainbat lagunek zauri larriak izan zituzten, abuztuaren 6an. Renoko errepideetan, berriz, Gaizka Larrañaga gaztea hil zen, hilaren 13an. /2003-09-05

TURISMOA

## Geroago eta turista gehiago etortzen dira Debagoienera

Debagoieneko turismo bulegoek jakinarazi zuten, Debagoienak turista dezente jaso zituen abuztuaren. Gehienak gure herriko kultura eta monumentuak ezagutzera etorri ziren. Paisaiak ere makina bat turista erakarri zituen gurera, kostaldeko masifikaziotik urrun. /2003-09-05



## Kasinoa eta Santa Teresako oktogonoak eraitsi egin zituzten abuztuko oporretan

Erdiko kaleko Kasino elkarteak eta Santa Teresako oktogonoak eraitsi egin zituzten, abuztuko oporretan ahalbidetuta. Asmoa da Kasinoa zegoen tokian Ferrerrias eta Erdiko kalea batuko dituen plaza edo esparru publikoren bat eraikitzea. Halaber, Udalak oraindik ez du erabaki oktogonoen ordezer zer egin. /2003-09-05

HILEKOESALDIA

**"Lotsagarria da esatea ez dela ezer gertatzen, fuel orbanak heltzen ari diren bitartean"**

**AITOR ZABALO** / ZUTABEGILEA  
2003-09-05

HILEKODATUA

**53.000**

**SARRERA IZAN DIRA KANPOKO IGERILEKUETAN**

Musakolako kanpoko igerilekuetan 53.000 sarrera baino gehiago izan zituzten. Uztailean ibili zen jende gehien. /2003-09-19

ARANZADIK TELLERIAKO LABEA BABESTU NAHI

↑ Aranzadi Zientzia Elkarteak Udalarari eskatu zion Telleria baserriko labea ez botatzea eta babestea. /2003-09-05

UR ZIKINA ETA USAIN TXARRA FERRERIAS KALEAN

↓ Hobi bat agerian geratu zen Kasinoa eraitsi ostean. Bertatik ur zikina eta usain txarra irteten ziren. /2003-09-05

AIPAGARRI



**IÑAKI AGIRIANO**  
Medikua

Iñaki Agiriano eta Inma Escribano eta Edurne Leibar erizainak Nikaraguan egon ziren hangoei kontsulta pasatzen. Botikak eraman zituzten. /2003-09-05



**JOXE BIXENTE ETXABE**  
Artzaina

Muxibar baserriko semeari omenaldia egin zioten Gipuzkoako Artzain Egunean. 81 urte ditu, eta horietako 68tan artzain aritu da Degurixan. /2003-09-05



**HALIHENA MOHAMED**  
Sahararra

Hainbat saharar umek gure artean ematen dute uda. Halihena, ordea, denbora luzeagoz geratu zen garuneko lesio bat aurkitu ziotelako. /2003-09-05

**Mobiliario**  
**ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**HIES**  
**BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

  
**MAE**  
**Bidaiak**

**Ondo pasatu Gabon jaiak!**

Maalako errebala 23  
ARRASATE  
Tel.: 943 71 24 16

**CREATIVO**

**ARQUERO**

**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta  
**943-790151 608-772867 679-455764**

**Urte Berriaren Sarreran**

**CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE**

**Jai zoriontsuak eta urte berri on!**

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea

 **Aranzabal Koop. E.**  
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**  
Durana 16 behea  
(Aretxabaleta)  
Tel.: 943 79 17 53

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**  
PVC, aluminio termi-  
ko eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.  
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Margoak

### Apain

MARGO ETA APAINKETA  
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Loramendi 7, 2-behea  
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza - Bainuak**  
**Gasa - Berogailuak**



## ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

## Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta  
aterkien konponketa • Artazi, laban, eta aba-  
rren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gau-  
zak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza etxea**  
Tel./Fax: 943 79 76 03



**10.000 KOLORETAKO MENUA**  
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

## Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Igeltserotza



**Izcue  
Irurzun**

Igeltserotza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Eraikuntzak

### Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63



**ZUTARRI S.L.**  
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.  
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

**ILE APAINDEGI MISTOA**

**iaran**

Zerrajera 1.  
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian  
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

**A  
U  
SART**

Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

**BITXORI**

Ile apaindegia



Erdiko kale 52.  
Tel.: 943 79 88 32

**JADE**

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

**ILEA**

UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

*Lore*

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50  
Lurrindegia eta estetika zentroa



KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

ILEAPAINDEGIA

**virginia.L**

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 65 65



edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida



# IRAILA

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

**“Umea nintzenetik idazten ditut poemak; diru gutxiago irabazi arren, gurago dut literaturan ibili”**

# 300

**KILO BUZKANTZA EGITEN DITUZTE SAN MIGELETAN**

Urtero Jose Ramon Otamendik eta Manuel Agirreurretak 300 kilo buzkantza prestatzen dituzte San Migel jaietan. /2003-09-26

KIRMEN URIBE / IDAZLEA

2003-09-12

*“Ez dut uste emakumeen kirolak edertasunean oinarritu behar duenik”*

AINHOA GALLASTEGI / FUTBOLARIA

2003-09-12

*“Nire musika jo gura dut, nik sentitzen dudana transmititzeko”*

SOLE N'KULU / MUSIKARIA

2003-09-05

## EHUNKIAK BATZEKO EDUKIONTZIAK KALEAN

↑ Zerbitzu honen bidez, edukiontzietan utzitako arropa, oinetakoak... birziklatzeko erabiltzen dira. /2003-09-12

## BEHARGIN BAT HIL ZEN LANEAN

↓ Langileak 55 urte zituen eta barakaldarra zen. Galdiano enpresarendako lan egiten zuen, Markuletan. /2003-09-05

## AIPAGARRI



**INAZIO LAKUNTZA**  
Alkatea

Debagoieneko Mankomunitateko presidentea ere bada. Bere aurretik Bergarako alkate Victoriano Gallastegi egon zen eserleku horretan. /2003-09-26



**ELENA HERRARTE**  
Txatxilipurdi

Txatxilipurdi elkarreko Haurren Saileko arduradun lanari ekin zion. Halaber, Kepa Lizarralde AEDko Kultura Sailearen ardura hartu zuen. /2003-09-19



**EKON**  
Musika taldea

Bederatzi urte eman du taldeak kontzertuz kontzertu, eta hiru disko kaleratu ditu. Gaztetxean eman zuen Ekona taldeak azkeneko kontzertua. /2003-09-26



## Enrike Letona preso ohia berriro kartzelaratu zutela salatu zuten

Enrike Letona mondragoetarrak 16 urte egin zituen kartzelan. Maiatzean aske utzi zuten, baina uztailaren 31n berriro sartu zuten kartzelan Audentzia Nazionalaren aginduz. Zuzenbidean adituek adierazi dutenez, aurrekaririk gabeko espetxeratzea izan zen. Senitartekoen prentsaurrekoan azaldu zuten Enrike Letona askatu zutela berriro espetxeratzeko asmoz. /2003-09-05



**Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.**

Zubillaga 20 OÑATI  
151 posta-kutxa ARRASATE  
Tel.: 943 78 35 00  
Faxa: 943 71 82 54  
Poltsikokoa: 627 48 58 13  
E-maila: bidaburu.h@eukalnet.net



# SPORT

# Key

## gabon hauetako izarrak



*Giltzaren kopia egiterakoan  
eska itzazu zure ohiko saltokian*

# JMA

# URRIA



*"Globalizazioaren aurrean eragile garrantzitsuena borroka identitarioa da"*

**GABIREL EZKURDIA** / ADITUA

2003-10-24



*"Garraio publikoko enpresek bilatu behar dute errentagarritasuna"*

**KOTE OLAIZOLA** / FORU ALDUNDIKOIA

2003-10-17

## HILEKOESALDIA

**"Gura dugu gazteak ere etortzea, gizarteari esatea lokalok ez direla bakarrik zaharrendako"**

**JUAN LUIS LIZARRALDE** / ABAROAKOIA

2003-10-03

## HILEKODATUA

# 2

**HILDAKO LANEAN ARI ZIRELA, URTE HASIERA EZKERO**

Urte hasiera ezker bi behargin hil ziren lanean. Azken biktimak Frixi enpresarentzat ziharduen. Gipuzkoan 25 hil ziren./2003-10-24



### RIP musika taldeko abeslari 'Mahoma' hil egin zen, etxean

Karlos Agirreurreta *Mahoma* hilda aurkitu zuten etxean, Bilbon. 44 urte zituen eta oso ezaguna zen herrian RIP taldeko abeslaria zelako. 80ko hamarkadan RIPEk jendetza handia batzen zuen kontzertuetan. Hurrengo hamarkadan ere jende asko joan zen taldea zuzenean ikustera. *Mahoma*-k musika eta autobus gidari lana uztartzen zituen eta aspaldian Bilbon bizi zen. /2003-10-17

### AGAKO-K ABIARAZI DU GAZTETXEKO WEBGUNEA

↑ Arrasateko gazte batzarrak martxan jarri du gatzetxearen gaineko txokoa: [arrasatekogaztetxea.tk](http://arrasatekogaztetxea.tk) /2003-10-17

### ANBULATORIO ONDOKO APARKALEKUA

↓ Orain bi urte sortu ziren lehen arazoak, Zerrajera inguruan lanak hasterakoan. Orain, negargarri dago. /2003-10-31

## AIPAGARRI



**XABIER ZUBIZARRETA**  
Alkate ohia



**IDOIA IBAÑEZ**  
Artisaua



**KAITIN ALLENDE**  
Irrati esataria

400 lagunek baino gehiagok omenaldia egin zieten alkate ohi Xabier Zubizarretari eta zinegotzi Ino Galparsorori. Herri bazkaria egin zuten. /2003-10-24

Ordizian egindako Artisaualdia azokan jaso zuen stand apainketaren hirugarren saria. Makramea, larrua eta beste gai batzuk lantzen ditu Idoiak. /2003-10-17

Euskadi Irratiko *Ipurtargia* saioko gidaritza lanaren ardura hartu zuen. Irratsaio horretan sexologoek, parapsikologoek... parte hartzen dute. /2003-10-31


## MENDIZABAL okindegia

### egunero zure alboan!

### ARRASATE

Seber Altube, 2

943 79 89 60



Gipuzkoa Etorbidea z/g  
Tel.: 943 79 20 50  
ARRASATE

## HOSTAL MUSAKOLA

Zorionak eta urte berri on!!



# AZAROA



*"Euskarazko hedabideek osasuna izateko babes-hesia eraiki behar dute"*

**AITOR ZUBEROGITIA** / TOPAGUNEA  
2003-11-28



*"Emakumeen aurkako bortxakeria fisikoa baino lehen gutxiespena.... dago"*

**NEKANE SAN MIGUEL** / EPAILEA  
2003-11-28

## HILEKOESALDIA

## HILEKODATUA

**"Udalbatzak ez digu inolako proposamenik egin; beraz, herriaren %20 jokoz kanpo dago"**

**XABIER ZUBIZARRETA** / HERRI ANITZA  
2003-11-14

# 15

**URTE BETE ZITUEN  
ARRASATE PRESS- EK**

Abenduaren 15ean bete zituen. Topagunearen jardunaldietan omenaldia jaso zuen esku artean duzun aldizkariak. /2003-11-28



### AED elkarteak 20 urte egin zituen euskararen normalizazioan

Herriko hainbat euskaltzalek Arrasate Euskaldun Dezagun sortu zuten 1983an. Orduetik hona elkarre euskaltzaleak makina bat lan egin du euskararen erabilera normaltzeko. Izan ere, Txatxilipurdi elkarte sortu zuen haur eta gaztetxoaren artean euskara sustatzeko. Gainera, Ekin Emakumeak, ARKO (*Goienkaria* barne) eta EUSKALAN bere itzalpean jaiotako elkarteak dira. /2003-11-14

### KONTSUMOAREN GAINEKO ARGIBIDEAK

↑ Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo-buseko kideek argitu zituzten hainbat herritar eta haurren zalantzak. /2003-11-14

### OZTOPO ARKITEKTONIKOAK GURE KALEETAN

↓ Ezintasun fisikoa dutenak oraindik ezin dira kalean bere kasa ibili, hainbat espaloi ez baitaude egokituta. /2003-11-28

## AIPAGARRI



**ENERITZ TIRADOS**  
Diseinatzailea

Europa mailako sari garrantzitsua irabazi zuen. Eneritzek bi CD gordetzeko kartoiko estalkia diseinatu zuen. Maiatzean jasoko du saria, Suitzan. /2003-11-07




**ZUHAITZ EZPELETA**  
Atleta

Zuhaitz izan zen mondragoetarrik azkarrena Behobia-Donostia maratoi erdian. Gainera, bere marka hobetu zuen. Iaz ere azkarrena izan zen. /2003-11-14



**MIKEL ETXAGIBEL**  
Gerente ohia

Donostiako Zinemaldiko gerente kargua utzi zuen. Etxa gibekek hiru urte eman zituen lan horretan. ETBn eta Guggenheimen ere aritua da. /2003-11-21



**HORTZ KLINIKA  
UARKAPE**

Odontologia orokorra  
Endodontzia  
Inplantologia  
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

# sustatu.com

interneteko profesional euskaldunen dako albistegia

<http://www.sustatu.com>



# ABENDUA



*"Emakumearen maitasuna sakrifizioan oinarritzearen ideia ezabatu egin behar da"*

**NORMA VAZQUEZ** / FEMINISTA

2003-12-12



*"Hurbiltasuna jatorrizkoa duten kanalen arteko elkarlana bultzatu behar da"*

**EDORTA ARANA** / IRAKASLEA

2003-12-12

## HILEKOESALDIA

**"Gauza on eta iraunkor gehientsuenak bezala, ARRASATE PRESS ekarpen askoren batura da"**

**IÑAKI MENDIGUREN** / ZUZENDARI OHIA

2003-12-05

## HILEKODATUA

# 295

**LAGUNEK ERABAKI ZUTEN  
ORGANOAK EMATEA**

ATCOREK Eroski kanpoan mahaia ipini zuen eta ibarreko 295 lagunek erabaki zuten organo emaile izatea. /2003-12-12



### Akordeoi lehiaketak Amaia antzokian

Akordeoi doinuak nagusi izan dira abenduan. Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak bost ekitaldi antolatu zituen: Nazioarteko XI. Lehiaketa, Gipuzkoako XXIV. Lehiaketa, Gipuzkoako XVI. Jaialdia, Variettes I. Akordeoi Lehiaketa eta Akordeoi Orkestra Lehiaketa. Ospe handia lortu du batez ere Nazioarteko Lehiaketak, eta punta-puntako parte-hartzaileak etorri dira Arrasatera.

Nazioarteko lehiaketan Kirill Chybine errusiarra izan zen nagusi. Bigarrena Milos Mlivojevis serbiarra eta hirugarrena Niko Kumpuvaara finlandiarra. Gipuzkoako Lehiaketan, berriz, senior mailan Naiara de la Puente Vadillo. Orkestren Lehiaketan, gorengo mailan, Sabadellgo orkestra; eta maila ertainean, Hernaniko orkestra. /2003-12-12

### BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA

↑ Babes ofizialeko alokairuzko 95 etxebizitza zozketatu zituzten. Bi urte barrurako beste 208 iragarri zituzten. /2003-12-12

### IKA-MIKAK KOMISIÑUAREN ETA UDALAREN ARTEAN

↓ Apurtu egin da jaiak antolatzeko elkarlana Santamas Komisiñuaren eta Udalaren artean. /2003-12-19

## AIPAGARRI



**IBAN GALAN**  
Karateka

Bergaran jokatu zuten Euskadiko Karate Txapelketan lehena izan zen 65 kilo baino gutxiagokoen mailan. Beste hiru arrasatear saridun izan ziren. /2003-12-05




**JONE MORRAS**  
GKEekin lanean

Jone Morras Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundearekin izan zen lanean uztailetik urrira arte. Abenduan eman dugu bidaia horren berri. /2003-12-05



**MARKEL BLANCO**  
Atleta

Markel Blanco Lau-dioko lasterketan azkarrena izateaz gain, Santamasetako krosean nagusiekin korritu eta laugarrena helmugaratu zen. /2003-12-13



## Zorionak eta urte berri on!

## ERRETRATUZAHARRA

Gabonetako  
antzinako  
kontuak

Urtea bukatzeaz dagoen honetan, kabalgata berezi baten argazkia ekarri dugu. Izan ere, 1958ko urte bukatzean, urte zaharra agurtzeko eta urte berriari ongi etorria egiteko desfilea egin zuten. Karrozaren gainean, gorenaren dauden bi neskatiletatik batek urte zaharra irudikatu zuen (Arantxa Alonso *Txomin Txiki*-k; irina bota zioten burura, zahar itxura emateko) eta besteak urte berria (Mertxe Etxebarriak). Apur bat beheragoko neskatila (kopetaduna) Achen Etxebarria da. Eta aurreneko ilaran daudenen artean, eskuma-eskumako mutikoa Luis Arregi izan daitekeela esan digute, eta haren ondoan dagoen bigarren neskatila arreba Puri izan daitekeela.

Gure berriemaileek gogoratzen dutenez, 40-50eko hamarkadan kabalgatak eta halako kontuak Elizaren ingurutik sortzen ziren. Sasoi hartan ez zegoen askatasun handirik, eta Elizak babesten zituen halako ekimen herrikoiak. Udalak lagundu baino gehiago trabak ipintzen zituen. Eta Elizak oihartzun handia zuen orduan, bestelako talde eta antzerakoek isilik egon behar izaten zuten-eta. Hala, Elizaren baitan talde ugari sortu ziren: Luistarrak, Accion Catolica, JOC (Juventud Obrera Catolica)... Gogo-



ratzen dute, era berean, 1947-48an Olentzero agertu zela Arrasaten. Diktadura sasoi izateko asko zen hori; are gehiago jakinda Olentzerori laguntzen zozazek euskaraz abestu zutela. Hunkigarria izan ei zen hura. Izan ere, euskara gutxi entzuten zen, eta entzuten zen

apurra Elizan.

Argazkikoaren moduko kabalgatak-eta egiten (Erregeena...) Udalak ez zuen laguntzen, baina bai Arrasateko bi lantegik: ELMAk eta Zerrajerak. Esan beharra dago, era berean, Arrasate herri txikia zela eta halako ekimenek izugarritzko oihartzuna

izaten zutela; ia herri guztiak parte hartzen zuten.

**Argazkia:** Arantxa Alonso *Txomin Txiki*.  
**informazioa:** Arantxa Alonso  
*Txomin Txiki* eta Musakolako lagunak.  
**Urtea:** 1958-59



Portaloi  
Optika

ZURE OPTIKA  
BERRIA  
ARRASATEN

ERDIKO KALE 10  
TEL.: 943 79 65 56


Txartel hau aurkeztuta, %10eko  
deskontua erosketa guztietan



Arrasate Irratia


*Beti airean.*

24 ordu etengabe emititzen



**parte hartu irrastian**

Tel.: 943 71 17 31  
e-posta: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)

**FM107.7**  **ARRASATE  
IRRATIA**

**GRUPO RK UZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**




Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**





# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 91. zenbakia

# 2003

# urteari begiratuwa

## ARAMAIO



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

*Aramaiar guztioi, 2004  
zoriontsua opa dizuegu*

Bixente Goikoetxea 2. Tel.: 945 44 52 08/Faxa: 945 44 52 76

# URTARRILA



*"Herritarrei esango nieke Udalarekin izan dituzten hartu-emanei eusteko"*

**NAGORE ARTAMENDI / IDAZKARIA**  
2003-01-10



*"Sagarrak banan-banan aukeratzen ditugu, sagardoa egiterakoan"*

**BENI PECIÑA / SAGARDOTEGIKOA**  
2003-01-17



## Luis Mari Azkargorta aske utzi ostean berriro kartzelaratu zuten

Espainiako Justiziak agindu zuen 1988an Luis Mari Azkargorta *Kanto* espetxeratzea. Aurten urtarrilaren 7an, ordea, aske geratu zen. Orduan, Aramaion eta Bergaran egin zioten harrera senideek, lagunak eta hainbat herritarrek. Hala ere, Audientzia Nazionalak berriro ere agindu zuen *Kanto* kartzelan sartzea. Kartzelan da azaroaren 27az geroztik. /2003-01-17

### KULTURA

## Bittor Mendialduak jaso zuen Landazuri elkartearen saria

Bittor Mendialdua organo jotzaileak Landazuri saria jaso zuen Gasteizen. Hala, Landazuri elkarteak saritu gura izan zuen aramaiarrak 50 urtean egindako lan oparo eta nekazina. Sari banaketan aurkezle izan zen Jesus Mari Estarronak adierazi zuenez, Bittor Mendialduaren merituen berri izan zuen Aramaion abesten izan zenean.

Halaber, Bittor Mendialduaren hitzetan, omenaldi ekitaldia oso polita izan zen. Landazuri elkarteak saridunaren omenezko kontzertua antolatu zuen. Ekitaldian senideen babesa izan zuen.

Bittor Mendialdua 1951z geroztik Aramaio organo jotzaile izan da, eta beti doan aritu da. /2003-01-17



Bittor Mendialdua, saria eskuetan.

### POLITIKA

## Garzonen errekerimenduak eztabaida piztu zuten

Garzon epaileak errekerimendua egin zuen udalbatzetako aktak jasotzeko. Urtarrilaren 22ko bilkuran ezker abertzaleko zinegotzi Amaia Aspek salatu zuen alkateak akta horiek bidali zituela. Orduko alkate Iñaki Nafarratek erantzun zion errekerimenduari erantzun ezan, ondorioak alkatearendako izango zirela. /2003-01-31

### KULTURA

## Aramaioko mapa toponimikoa aurkeztu zuten

Mapak auzoen, baserrien, erreken... izenak biltzen ditu. Egile batzuek aurkeztu zuten *Aramaioko Mapa Toponimikoa* lana. Egileen hitzetan, toponimoak lortzeko beharrezkoak izan zituzten herritarren ahozko testigantzak, Udaleko artxiboa eta Garbiñe Insaustiren liburua. Euskaltzaindiak izenak egokitu zituen. /2003-01-24

### AZPIEGITURAK

## Hainbat errepide konponketen beharrean ziren

Udaleko Zerbitzu Teknikoko langileek jakinarazi zuten, Mazmela eta Pagoluzeta arteko pistako zati bat jausi egin zen, abenduko euriteen ondorioz. Zabolatik Untzillara doan bidean, berriz, zuloak agertu ziren, nahiz eta aurrez horiek estaltzeko lanak egin. Bestalde, hainbat herritar kexu ziren arekak zikin zeudelako. /2003-01-24

# OTSAILA



*"Nik neuk enbaxadore lanak betetzen ditut Aramaiorekin: jende guztiari esaten diot hona etortzeko"*

**LAURA DIAZ / ARTXIBOZAINA**  
2003-02-07

### AURREKONTUA

## Aho batez onartu zuen udalbatzarrak aurrekontua

Alderdi guztiak ados jarri ziren, eta 2003ko aurrekontua aho batez onartu zuten. 2002koa baino %24 txikiagoa izan zen; 1.740.609,38 euro guztira. Betiko moduan, Hirigintza Sailari egokitu zitzaion aurrekonturik handiena: 784.221 euro. Sail horretako partidarik handiena erabili zen udaltxea zaharberitzeko. Halaber, 155.473 euro erabili zituzten Are-

xolan beharrezko azpiegitura gehiago ipintzeko.

Ogasun batzordeak 657.681,21 euroko aurrekontua izan zuen. Diru kopururik handiena administrazioaren soldadak ordaintzeko erabili zuten. Era berean, Kulturako batzordeak igoera handienetakoak izan du; izan ere, batzordeak bere gain hartu du kultura etxe berria kudeatzea. /2003-02-07

### GIZARTEA

## Bi egun argindar barik haizetearen ondorioz

Haizeteak Gellaon zuhaitz bat bota zuen, eta ondorioz argindarra etenda egon zen bi egunez. Iberdrolaren esku geratu zen matxura konpontzea. Halaber, Udaleko Zerbitzu Teknikoko kideen esanetan, haizeak pinu bat bota zuen, eta inguruko lau baserri argi barik geratu ziren. Hala ere, matxura hori berehala konpondu zuten.

Gauza bera gertatu zen urtarrilaren 24an; gauean oso haize zakar eta bortitza ibili zen, eta Aramaio 15 orduz argi barik geratu zen. Oraingoan ere Gellaon inguruko pinuren batek goi tentsio-ko hariak bota zituen. Gertatutakoaren arduraduna Iberdrola konpainia zen, eta, beraz, berari zegokion matxura konpontzeko ardura. /2003-02-28

### KULTURA

## Kalitate oneko lanak aurkeztu zituzten Ipuin Lehiaketan

Ipuin Lehiaketaren sari banaketa otsailaren 22an egin zuten. Txirritola Euskara Elkarteak bost sari banatu zituen. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, Ane Herizek irabazi zuen eta Nerea Azurmendi geratu zen bigarrena. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, berriz, Bea-

triz Azurmendi izan zen lehena, eta Igor Oianguren bigarrena.

DBHko lehen ziklokoen artean ez zen lehen saririk eman, kalitate zela eta. Bigarrena, ordea, Iraia Beitia izan zen. Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lan guztiak maila onekoak izan ziren. /2002-02-28



Sari banaketa kultura etxean egin zuten.

# MARTXOA



*"Herriaren alde egin dugunez, erabaki gehienak aho batez hartu ditugu"*

ARANTZA URIARTE /GAZTE ABESBATZA

2003-03-14



*"Helburu dugu kultura eta kirol programak auzoetara gerturatzea"*

ZURIÑE ZABALA / ZUIAKO KOADRILA

2002-03-28



## Hainbat abereren kalteak mendian

Udalak herriko ganaduzaleei ohar bat bidali zien. Izan ere, ganaduak Aramaioko basoetan kalteak eragiten zituen, bai udal mendietan bai eta lursail pribatuetan ere.

Udalak kexu asko jaso ditu abereak landareen kimuak jaten eta zapaltzen dituztelako. Kaleratutako oharrean Udalak zioen ez zela legezkoa hainbat ganaduzalaren jokaera, euren abere-buruak besteen lursailetan sartzen uzteagatik.

Era berean, abere jabe-ei euren aziendak ondo zaintzeko eskatu zien Udalak, eta "zuhaitz-landaketetan sartzen ez uzteko". Eskatutakoa bete ezean, Udalak neurriak hartuko zituzkeen, eta, beraz, Mendietako Foru Arauak zehazten dituen isunak eta zigorrak ezarriko zituzkeen. /2003-03-14

# APIRILA



*"Udalean arazo politiko gutxi izan ditugu; herritarren aldeko lana egin dugunez, erabaki gehienak aho batez hartu ditugu"*

IÑAKI NAFARRATE / ALKATE OHIA

2003-04-11

KULTURA

## Jose Mari Azkarraga 'Lurgorri' omendu zuten

Aramaioko Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen Jose Mari Azkarraga *Lurgorri* omentzeko. Hala, idazlearen gaineko hitzaldia egin zuten hilaren 11n. Biharamunean, Paco Salaberriak eta Josemari Velez de Mendizabalek mahai-ingurua egin zuten, *Lurgorri* eta bere garaia mintzagai hartuta. Era berean, *Lurgorri*-ren

gaineko CD, bideo eta liburu bana aurkeztu zituzten. Gero, herriko pasealeku bati *Lurgorri* izena jarri zioten.

Jose Mari Azkarraga idazlea Oreretan jaio zen, baina Aramaio izugarri maite zuen. Madrilen ikasi zuen. Nazionalek fusilatu egin zuten 1937ko abenduaren 16an, 21 urte zituela. /2003-04-04

GIZARTEA

## Abere-ustiapenerako etxebizitzaren gaineko araudia

Azken urteetan herrian bost etxebizitza eraiki dituzte, antza, abere-ustiapenerakoak zirenak. Baina Udala konturatu zen etxe horietan ez zela halako jarduerarik aurrera eraman.

Horregatik udalbatzarrak onartu zuen abere-ustiapenerako etxebizitzaren gaineko ordenantza. Behin-behineko orde-

nantza horren arabera, interesdunak sei baldintza bete beharko ditu. Besteak beste, etxebizitza eraikitzea beharrezkoa dela arrazoitza; ustiapeneraren bidegarritasuna ziurtatzen duen proiektua aurkeztea; behin betiko lanpostu bat sortzea; eta ustiapena gutxienez hamar urtean martxan egotea. /2003-04-04



Abere-ustiapenerako etxebizitza berriek sei baldintza bete beharko dituzte.

POLITIKA

## hAMAlau taldeak aurkezpena egin zuen herritarren aurrean

Talde berriak lau ideia nagusitan du oinarri: ideia guztien errespetua, autodeterminazioa, euskararen defentsa eta ikuspuntu ezkertiarra. Martxoaren 15an egin zen aurkezpena, Gernika Deialdiarekin bat eginez. hAMAlau taldeko kideek herritarrei laguntza eskatu zieten, Euskal Herriaren egoera latza gainditzeko. /2003-03-14

GIZARTEA

## 'Euskaldunon Egunkaria'-ren aldeko mozioa eta ekimenak

Udalbatzarrak *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zuen, aho batez. Era berean, Kontseiluaren adierazpenak bere egin zituen. Gainera, herritar dezentek parte hartu zuten Txirritola Euskara Elkar-teak deitutako kale bilkuran; gutxi gorabehera 80 lagun inguru bildu ziren Bizente Goikoe-txea plazan. /2003-03-07

KIROLAK

## Maidier Unda Espainiako Txapelketan garaile

Maidier Unda oletarra lesionatu egin zen Espainiako Txapelketa hasi baino hilabete batzuk lehenago. Hala ere, zaintziratua gainditu, eta txapelketa irabazi zuen, otsailaren 15ean. Gainera, Turkian jokaturako nazioarteko txapelketa batean ere parte hartu zuen. Bigarrena izan zen, Espainiako Selektzioaren ize-nean. /2003-03-07

dukiena  
**dukiena**  
J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86  
ARAMAIO

# MAIATZA



"Aramaioko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren eskaera handia da"

SUSANA MARTINEZ / UDALA

2003-05-09



"Ez dugu lortu jendeak gobernuz kanpoko erakundeekin bat egitea"

LEIRE ARANA / ELKARTASUN EGUNA

2003-05-23



## EAJ-EAk eskuratu zuen alkatetza

Udal eta Batzar Nagusiatarako hauteskundeak lasaitasunez egin ziren. EAJ-EA koalizioak alkatetza eta udalbatzako eserleku guztiak (bederatzi) eskuratu zituen, ezohiko udal hauteskundeetan. Mertxe Mondragon buru zuen koalizioak botoen %50,4 lortu zituen, PSE-EEk %1,42, PPk %0,79 eta UAk %0,15.

Era berean, hAMAlau plataformak boto guztien ia %25 lortu zituen. Baliogabeak kontuan hartu izan balira, ezker abertzaleko plataformak hiru zinegotzi izango zituzkeen eta EAJ-EA koalizioak, berriz, sei.

Hala ere, hauteskunde eguna normaltasunez igaro zen. Bozkatzeko eskubidea zuten herritar gehienak eguerdian joan ziren bozkatzera San Martin Eskolako mahaietara. /2003-05-30

# EKAINA



"Zer da aurrerabidea? Abiadura Handiko Trena hartu eta ordu pare batean Parisera heltzea?"

ARANTZA IBABE / LANGILEA

2003-06-27

GIZARTEA

## Udalak gazte lokal berriak ixtea erabaki zuen

Udalak erabakia hartu zuen kultura etxe berriko gazte-lokalak zabaldu eta urte eta erdira. Udalak bere erabakia argudiatzeko "segurtasun eta garbitasun arazoak" argudiatu zituen. Era berean, Udalak adierazi zuen lokalek itxita jarraituko zutela erabaki berri hartu arte. Gazteak ez zeuden batere pozik itxierarekin. Eta

gazteen eledun Maddalen Nafarratek adierazi zuenez, Udaleko ordezkariak lokaletan sartu ziren abisatu barik. Halaber, onartu zuenez, gauza batzuk apurto zituzten, baina halakoak gertatzera koan Udala jakinaren gainean jartzen zuten berehala. Alkate berriekin batzartzea eskatu zuten. /2003-06-13

EMAKUMEAK

## Zuiako Koadrilako emakumeek topaketa egin zuten

Zuiako Koadrilako herrietako hainbat emakume Aramaion batu ziren. Zuiako Koadrilak antolatu zuen topaketa, eta edozein emakumek parte hartu ahal izan zuen.

Hainbat ekitaldi egin zituzten. Hala, *Historia egin zuten emakume arabarrak* izeneko hitzaldia egin zuen Paloma Manzanos Arre-

al historialariak, eta Txinere antzerki taldeak *Nora hoa neska?* lana taularatu zuen.

2002ko topaketan gutxi gora-behera laurogei emakumek hartu zuten parte. Horrelako topaketan parte hartzeko gonbidapena edozein emakumeri zuzendutakoa da, emakume elkarteren bateko kide izan edo ez. /2003-05-30

EUSKARA

## 'Aramaioko euskara' liburua aurkeztu zuten

Txipi Ormaetxeak idatzi zuen, eta Udala arduratu zen argitaratzeaz. Horrez gain, Foru Aldundiak diruz lagundu zuen herriko euskararen gaineko lanaren argitaratzea. Txipi Ormaetxeak 65 urtetik gorako hiztunak elkarrizketatu zituen lana osatze aldera. Guztira, 600 ale plazaratu zituzten Aramaiorako. /2003-05-16

BERTSOLARITZA

## Agirre, Arabako Bertsolari Txapelketan finalista

Manex Agirre sailkatu zen Gas-teizko Printzipal antzokian jokatutako finalerako. Txukun ari zen Amurrion jokatutako finalerdian; 212,5 puntu lortu zituen. Ekainaren 1eko finalerako beste bost bertsolari hauek sailkatu ziren: Asier Otamendi, Zigor Enbeita, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi eta Ruben Sanchez. /2003-05-23

INFORMATIKA

## Udalaren webgune berria abian: 'www.aramaio.org'

Webguneak herriaren gaineko informazioa biltzen du, bai euskaraz bai eta gazteleraz ere. Horrez gainera, webgunearen harpidedun bakoitzak norberaren ordenagailuan jasoko ditu Udalaren inguruan sortutako berriak. Hain justu, Goienak eta Code & Syntax-ek ekoiztu dute webgunea, eta Nora Gonzalez edukiez arduratu da. /2003-06-06



2002an laurogei bat lagun batu ziren emakumeen topaketan.

Zerbitzuak  
Garbiketak  
Lorazaintza



Bixente Goikoetxea 7A. ARAMAIO  
Tel.: 945 44 53 16 / 651 70 41 45

GOIKO  
Taberna



Tel.: 945 44 50 14  
ARAMAIO

ITURRIOSTE  
GARAJEA

Nekazaritza makinaren eta autoen  
salmenta eta konponketa.

Olio, gurpil eta balazten konponketa

Urte berri on!

Santi Kurtz plaza 14.  
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

## UZTAILA



*"Hobe da norberak esperientzia hauek bizi izatea, entzutea baino"*

**OLATZ ALTUBE** / BRIGADISTA

2003-07-04



*"Jendeak erromeriak baino gurago du musika tabernan ozen entzun"*

**NIKOLAS GARDOKI** / SOINUJOLEA

2003-07-18

## ABUZTUA



*"Errekaren kontra urbanizatu egin da Debagoienean, gune naturalak egiteko aukera aprobetxatu barik"*

**JON MUNIATEGIANDIKOETXEA** / ARKITEKTOA

2003-07-18

KULTURA

## Floren Untzueta, Gasteizko organo emanaldi jendetsuetan

Organo emanaldiak Gasteizko San Pedro elizan egin zituzten Isabel Ruiz de Larrinagak eta Floren Untzueta aramaiarrak. Emanaldi hauetan organoaren gaineko azalpen-gidak egin zituzten, organo kontzertu laburrak eskaintzeaz gain.

Iazkoa esperientzia arrakastatsua izan zen, eta aurtengoa ere

halakoa izan da; 2.000 lagunentzako bisita izan dute uda honetan San Pedro elizan. Era berean, organoaren gainean egindako eskola eta hitzaldietan 650 bat lagunek parte hartu dute. Horrez gain, leku askotako herritarrek izan dira bertan: ingurukoak (Arrasate, Bergara...) eta oso urrunekoak (Brasil). /2003-07-15



Floren Untzueta San Pedro elizako organo-jotzailea da.

DIRULAGUNTZAK

## Ikasliburuak erosteko dirulaguntzak eman zituzten

Nahi izan zuten ikasleek eta gurasoek laguntzak jaso zituzten ikasurte berriko ikasliburuak erosteko. Eskaerak egiteko epea uztailearen 15ean hasi eta urriaren 15ean amaitu zen.

Hauek izan zitezkeen dirulaguntzetako onuradunak: Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleak eta beren gurasoak edo tutoreak; Lehen Hezkuntzako ikasleak eta beren gurasoak edo

tutoreak; eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak eta beren gurasoak edo tutoreak.

Era berean, dirulaguntza jasotzeko beharrezkoa zen Araban erroldatuta egotea. Administrazioak ikasle bakoitzeko eskaera bakarra onartu zuen. Hala ere, eskatzaileak eskaera bat baino gehiago egin zezakeen, bere ardurapean ikasle bat baino gehiago bazuen. /2003-07-15

## Parte-hartze handia izan zen Erretiratuena Kultura Astean

Asteari hasiera emateko bi hitzaldi izan ziren. Alde batetik, Susana Martinezek oinarrizko gizarte zerbitzuen gainean hitz egin zuen. Bestetik, Javier Esapaña medikua osasunaz mintzatu zen. Bietan gure herriko erretiratuek adi-adi jarraitu zituzten hizlarien azalpenak. Horrez gain, Araban zehar txangoa egin zuten eta elkarrekin bazkaldu zuten. /2003-07-24

KULTURA

## la ehun lagunek parte hartu zuten Udako Ikastaroetan

Bigarren urtez, Aramaioko Udako Ikastaroek herritar dezente erakarri zuten; 80-90 inguru, antolatzaileen hitzetan. Euskal Herriko eta Madrilgo hainbat adituk Goi Erdi Aroaz mintzatu ziren, hilaren 1etik 4ra bitartean. Garai nahiko ezezaguna denez, hainbat ikuspegi azaldu zituzten hizlariak. Halaber, horietako hitzaldi batzuk eus-

karaz egin zituzten, eta kasu horietan aldi bereko itzulpen zerbitzua egin zuten.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa (UPV-EHU) eta Foru Aldundia izan ziren Udako Ikastaroetako antolatzaileak. Antolaketa lanak aurrera eramateko Aramaioko Udalaren laguntza izan zuten. /2003-07-04



Henrike Knörr.

MURU landetxea



- 3 logela bikoitz komunarekin
- Egongela
- Sukaldea erabiltzeko aukera

Gantzaga auzoa • Tel.: 945 44 53 65

BA

**BEHI-ALDE**

**ERKOP**

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**

Olaeta-Aramaio (Araba)

**Zuzenbide postala**

Apartado 44

20500 Mondragon

Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15



MONDRAGON  
CORPORACION  
COOPERATIVA

# IRAILA



*"Gura dut Nafarroako Erreinuak ahalik eta moneta gehien bildu"*

**PABLO BEITIA** / BILDUMAGILEA  
2003-09-12



*"Nahi baino jende gutxiago etortzen da KZGunera"*

**MERTXE ELORTZA** / ARDURADUNA  
2003-09-26



## Basurdeek Bolintxoko zelaian kalteak eragin zituzten

Sei basurde (eme bat eta bost kume) Bolintxo ingurura jaitsi ziren behin baino gehiagotan. Udan basoak oso lehor zeudenez, basurdeak janari bila jaisten ziren. Martin Etxaberen zelaian arto guztia jan zuten, eta Julian Urtzuetarenean, berriz, zelai guztia harrotu zuten. Oilogor ehiztari elkarteak adierazi zuenez, bere gain hartuko zituen kalte guztiak. /2003-09-26

# URRIA



*"Beldurra gure baitan dago, baina ez digu gizartean bizi izateko balio. Izugarriena da beldurra gizartearen zati denean"*

**YAGO GORONAETA** / LANGILEA  
2003-10-17

KIROLA

## Xabier Alustiza gidaria nagusitu zen rallysprintean

Xabier Alustiza izan zen azkarena 26,4 kilometroko ibilbidea egiten. Guztira 18 minutu eta 7 segundo behar izan zituen. Bigarren postuan Txema Uzkudun geratu zen, txapelunarengandik 21 segundora. Hirugarrena Luis Mari Azkune gidaria izan zen; Alustizak baino 24 segundo gehiago behar izan zituen. Xabier

Alustizak 400 euroko saria irabazi zuen. Gidariak puntu hauek igaro behar izan zituzten: Errotabarri, Arexola, Arriola, Gantzaga eta Ibarra. Ibilbide horri bi buelta eman behar izan zizkioten. Antolatzaileek adierazi zuten, uste baino gidari gutxiagok parte hartu zuen, eta mila ikusle inguru batu ziren. /2003-10-17



Ez zen jende askorik batu Aramaioko maldetan.

KIROLA

## Plater tiroketako Kurtzeta-Gain I. saria jokatu zuten

Ohitura dago plater tiroketa egiteko iraileko lehen asteburuan. Aurten, ordea, izen ofiziala jarri diote herrian jokatzeko den probari: Aramaioko Kurtzeta-Gain I. Saria.

Sari hau Araba mailako txapelketa da, eta nahi duen edonork har zezakeen parte, nahiz arabarra ez izan. Txapelketa 15 plateratara jokatu zuten. Anto-

latzaileek 600 euro inbertitu zituzten saritan.

Bestalde, Kurtzeta-Gain elkarteak oso pozik zeuden lehenengo postua lortu zutelako Arabako Herri Mailako Txapelketako 11. aldian. Elkarteko kide Jan Luis Nafarratek adierazi zuenez, urte luzez bigarren mailan geratu ziren, eta irabazteko gogoz zeuden. /2003-09-05



Kurtzeta-Gain taldeko kideak.

AUZOAK

## Auzoetako alkateak izendatu zituzten lau urterako

Hauek izango dira auzo alkateak: Alzagan, Kontxi Kortabarría; Arexolan, Agustin Arrizabalaga; Arragan, Mikel Kortabarría; Arriolan, Xabier Herrarte; Azkoagan, Raket Arriolabengoa; Barajuena, Lourdes Gardoki; Eguzkierripan, Estaban Altuna; Etxaguenen, Julian Bergaretxe; Gantzagan, Miguel Angel Luri; Matxainen, Martin Etxabe; Untzillan, Juan Antonio Aretxaga; Uri-

barrin, Karmelo Garaitonandia; eta Salgon, Pedro Lizarralde.

Oro har, auzo alkatearen egin beharra da Udalaren eta auzoaren artean ordezkaritza lana bete. Auzo batzuetan bozketak egiten dira ordezkaritza aukeratzeko. Beste batzuetan, ordea, familien artean txandakatzen dira. Irailean auzoek beren ordezkaritza aukeratu zituzten, eta osoko bilkuran berretsi zituzten. /2003-10-03

**UXARTE**

• Bost logela komunekin  
• Bazkari eta afariak  
• Telebista logelatan

Nekazaturismoa

Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 • Faxa: 945 44 59 10  
uxarte@euskalnet.net

**MIREN**

ILE APAINDEGI  
MISTOA

Nardeaga 3 behea  
Tel.: 945 44 52 94  
ARAMAIO

**Wnboto**  
ramaixo aberna

Musika eta giro paregabea  
Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

# AZAROA



*"Gerra garaian Dragoiak izeneko Mondragoeko batailoia egon zen hemen, eta nik anagramak bordatzen nituen"*

MIREN AGINAGALDE ARANA / BORDATZAILEA  
2003-11-14

POLITIKA

## Bere lanari eutsiko ziola aurreratu zuen hAMAlauk

Udal hauteskundeetatik azarora bitartean egindako lana baloratu zuen hAMAlau taldeak. Ezker abertzaleko plataformak salatu zuen udal gobernukideen borondate falta. Izan ere, taldea udal gobernuan parte hartzen saiatu zen, baina hauteskundeak egin zirenetik ez zuen EAJ-EAtik erantzunik jaso. Hala, hAMAlauk adierazi zuenez, hainbat herritan

(Eskoriatza, esaterako) formula legalak erabili dituzte, eta Espainiako justiziak legez kanpo utzitako plataformek udal gobernuetan parte hartzen dute.

Hori dela-eta, hAMAlau taldekoek aurreratu zuten herritarren babesa bilatuko zutela. Era berean, orain arte egindako lanarekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu zuten. /2003-11-07

KULTURA

## Aramaioren eta Arrasateren gaineko liburua kalean

Aramaioren eta Arrasateren arteko loturaren gaineko liburua idatzi zuen Josemari Velez de Mendizabalek. Bere izenburua da *Aramaio et Arrasate, Historiak lotutako bi herri*. Historialari aramaiarrak bi hizkuntzatan idatzi zuen azken lana: euskaraz eta gaztelaniaz. Liburu horretan argazki zaharrak eta antzinako dokumentuak aurkituko ditugu, tes-

tuei laguntzen. Hiru zati ditu Velez de Mendizabalen liburuak: lehenak Erdi Aroko makina bat kontu biltzen ditu; bigarren zatia hasten da Aramaio Arabako A-naidietara sartu zeneko kontakizunekin; hirugarrenean, ostera, XX. mendea da protagonista nagusia.

Aurkezpena hilaren 28an egin zuten, Aramaion. /2003-11-21

EUSKARA

## Oso giro ona izan zen San Martingo Partxis Lehiaketan

Txirritola euskara elkarteak antolatu zuen San Martin eguneko Partxis Lehiaketa. Guztira 42 lagunek jardun zuten partxisean, eta giroa oso ona izan zen. Hain ona izan zen, lehiaketa amaitu ostean batzuek partxisean jokatzeko jarraitu zuten. Irabazleei dagokionez, Alberto Azur-

mendik lehen postua lortu zuen (bi urtez jarraian) eta 90 euroko saria poltsikoratu zuen. Gazteen mailan, berriz, Lorea Oiangueren izan zen onena, eta 60 euroko saria lortu zuen. Azkenik, sari bera eskuratu zuen umeen mailan nagusi izan zen Ekain Erizek. /2003-11-14

# ABENDUA



*"Aramaio herri txikia da BAINA hilikutxa batean sartua da"*

MANEX AGIRRE / IKASLEA  
2003-12-12



*"Diruaren jabeak betikoak, langileak herri xumea"*

ARANTZA IBABE / LANGILEA  
2003-12-19



## Gazteak ez dira sartu lokaletan

Gazteen lokalak direla-eta, gazteek eta Udalak batzarra egin zuten. Baina Udalak ez zuen onartu gazteek egindako planteamendua. Eta, Udalak lehenagotik zehaztutako baldintzek bere horretan zirautela jakinaz zieten gazteei. Horren ondorioz, gazteek erabaki zuten ez zirela berriro sartuko kultura etxeko lokaletan, ez dituzte onartzen-eta Udalaren baldintzak. Batez ere gazte-lokalak erabiltzeko ezarritako adin-muga (20 urtera arte) eta lokalon ordutegiak piztu izan du ika-mika aipatutako bi taldeen artean. Gazteek nahi dutena da bata zein bestea libre izatea, eurek erabakitzea. Udalak, berriz, arauak ezarri nahi ditu. Gauzak horrela, lokalak hutsik segitzen dute, eta gazteek Santa Ana ermitako arkupean. /2003-12-05

GIZARTEA

## Epaitegiaren erabakiz Oletako abadetxea auzotarrena da

Epaitegiak erabaki zuen Oletako abadetxea elizarena barik auzotarrena dela. Kontua da abadetxea oletarrek eraiki zutela ardoari ezarritako zergaren bitartez. Urte luzez abadea han bizi izan da, baina eraikinaren jabetza eskuratzeko 30 urtez jarraian bizi behar zuen abaderen batek, eta ez da hala izan. Gauzak horrela, 1975etik aurrera,

abadetxea hutsik zegoenez, oletarrek euren beharretarako erabili izan dute (elkarte moduan, emakumeendako...). Baina lan batzuek ika-mika piztu zuten auzotarren eta Gotzaindegia artean. Epaitegiataraino eraman zuen arazoa Gotzaindegia. Eta lehen esandako moduan, epaitegiak oletarrei eman zien arrazoia. /2003-12-05



1747an eraiki zuten abadetxea.

**ARBEL** S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak



Errotabarri 1,  
Tel: 945 44 51 19  
Aramaio

artizar



Label kalitatea duen esnea

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zabola-Azkoaga  
ARAMAIO  
945 44 51 58  
679 162 499



*Aramaioko  
Udalbatzak Gabon  
jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
aramaiar guztioi*

